

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4620

EBAZPENA, 2016ko urriaren 6koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, 2016. urtean Kultura eta gizarte arloetako bitartekotza- eta berrikuntza-proiektuetarako diru-laguntzak jakinarazten dituen (Bitartez deialdia).

2016ko apirilaren 18ko EHAAn, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko martxoaren 24ko Agindua argitaratu zen, Kultura eta gizarte arloetako bitartekotza- eta berrikuntza-proiektuetarako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Agindu horren 12.2 artikulua dioenez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak hartutako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei banakako jakinarazpena egingo ez zaienik.

Horiek horrela izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko martxoaren 24ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta haien onuradunak jakinaraztea. Horien zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 6a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

ERANSKINA

"BITARTEZ" PROGRAMARI ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK

Kultura eta gizarte arloetako bitartekotza- eta berrikuntza-proiektuetarako dirulaguntza eman zaien zerrenda.

Eskatzailea	Proiektua	Diru-laguntza
Adierak dantza eta hezkuntza elkarte	Gorputzaldiak	26.270
Asoc Cultural y Deportiva Emovere	Dualité, cartografías transculturales	28.021
Asociacion de innovacion cultural Moviltik moviles para el cambi	Habitattak	31.807
C2masi SL	Experiencias de hibridacion de base artistica y cultural Conexiones Improbables 2016	22.466
ColaBoraBora koop elk txikia	Tecnoblandas	26.073
Erakusmeta Kultur Elkarte	ZAS Kultur. Espacio de mediación cultural en Vitoria-Gasteiz.	23.071,
Gatzipeko Kultur Elkarte	Bulegoa z/b 2016	32.983
Gorka Olmo Jimeno	Azken muga	22.466
Guerrilla Kulturala Elkarte	Guerrilla Kulturala-Elk.Arte Ekintza	21.679
Hirikiten Hiriaren Ikerketarako Elkarte	Eibar Lab's	22.128
Iametza Interaktiboa S.L.	DantzaIKT: Dantza Elkarreragiletza Teknologikoa	21.660
Lekuk Kultur Elkarte	Beti Bezperako Koplak / Ikus-entzunezko Sormen Laborategia	8.565
Maite Martínez de Arenaza Hidalgo	La Taller- Erredakzioa	14.507
Mintzola Fundazioa	Kulturarte 2016 - Munduko Ahozko Inprobisazio Kantatuaren II. Topaketak (Europa bat-batean)	27.149
Okela Kultur Elkarte	VIII-XIII AMP. Artisten Meeting Pointa	36.634
Tipi studio s. Coop. Pequeña	Elkartoki Lab	34.521